# Kalkulu egokiak eginez, erraz zehaztu daiteke partikularen posizioa.

# Euskaltzaindiak, 28. arauan, adierazten du zer forma hartzen duen aditzoinak* euskara batuan.

| partizipioa | aditzoina |
|---|---|
| ikasi | ikas |
| hartu | har |
| bildu | bil |

* Ahaleran (*ikus dezakezu*), aginteran (*ikus ezazu*) eta subjuntiboan (*ikus dezagun*) erabili ohi den aditz-forma da aditzoina.

# Euskaltzaindiak, 28. arauan, adierazten du zer forma hartzen duen aditzoinak*

par




* Ahaleran (*ikus dezakezu*), aginteran (*ikus ezazu*) eta subjuntiboan (*ikus dezagun*) erabili ohi den aditz-forma da aditzoina.

Euskaltzaindiak, 28. arauan, adierazten du z … ak*

Oharra:

Aditzoina partizipiotik formaz bereizteari dagokionez, hauxe dio Euskaltzaindiak 28. arauko irizpenean:

"*Halatan euskara batuan aditzoinak erabiltzerakoan forma berezien onestea eta gomendatzea egoki ikusten du Euskaltzaindiak.*"

## Salbuespenak:

Bukaeran *i* bokala duten aditz batzuek ez dute bokal hori galtzen aditzoinean.

| Partizipioa | Aditzoina |
|---|---|
| ari izan | ari |
| bizi izan | bizi |
| etsi | etsi |
| jaiki | jaiki |
| jalki | jalki |
| jalgi | jalgi |

Nola bereizi: halako aditzek, oro har, -*TZEN* aspektu-marka hartzen dutenean ere ez dute galtzen bukaerako *i* hori.

aritzen, bizitzen, etsitzen, jaikitzen, jalkitzen, jalgitzen…

Salbuespenak:

Bukaeran, ... zen
aditzoine...

Oharra.

1) *Itxi* aditzak *i* bokala galtzen du *-tzen* markarekin; haren aditzoinaren forma, hala ere, *itxi* da:

*Itxi dezakegu*

2) *Eutsi* eta *iritzi* aditzek *-tzen* aspektu-markarekin bukaerako *i* bokala galtzen badute ere, partizipioaren forma onartzen dute aditzointzat:

*euts diezaioket / eutsi diezaioket*
*iritz diezaioke / iritzi diezaioke*

Nola bereiz... ...n
dutenean e...

aritze...

Salbuespenak:

Aditz eratorria denean, hots, izenetik edo izenondotik sortua denean aditza, partizipioaren forma ere onartzen da aditzointzat:

| hitza | partizipioa | aditzoina |
|---|---|---|
| eder | edertu | eder daiteke<br>edertu daiteke |
| gizon | gizondu | gizon dadin<br>gizondu dadin |

Baina aditz bihurtze horretan jatorrizko hitzaren forma aldatua bada, orduan:

| hitza | partizipioa | aditzoina |
|---|---|---|
| zoro | zoratu | zora daiteke<br>*zoratu daiteke |

Kasu bereziak:

Aditz eratorriaren abiapuntua den hitzak bukaeran *tz*, *ts* edo *tx* kontsonante multzoa badu, multzo horrek agertu egin behar du aditzoinean:

| | | |
|---|---|---|
| zehatz | zehaztu | zehaztu daiteke<br>zeha**tz** daiteke<br>*zehaz daiteke |
| huts | hustu | hustu daiteke<br>hu**ts** daiteke<br>*hus daiteke |

## Kasu bereziak:

Aditz ... bukaeran
tz, t... multzo
horrek ... / atzizkia

**Oharra.**

Eratorriak ez diren aditz batzuek ere -tz kontsonante multzoa agertzen dute aditzoinean:

| | |
|---|---|
| piztu | pitz daiteke |
| ahaztu | ahatz dezakegu |
| berpiztu | berpitz daiteke |
| … | … |

* piz / piztu daiteke
* ahaz / ahaztu dezakegu
….

## Kasu bereziak:

Aditz eratorriaren abiapuntua den hitzak bukaeran *t* kontsonantea badu, aditzoinak eutsi egiten dio t kontsonante horri:

| | | |
|---|---|---|
| ausart | ausartu | ausartu naiteke<br>ausart naiteke<br>*ausar naiteke |
| laket | laketu | laketu dakioke<br>laket dakioke<br>*lake dakioke |
| bat | batu | batu gintezke<br>bat gintezke |
| oroit | oroitu | oroit zaitezke |

## Kasu bereziak:

Aditz eratorriaren abiapuntua den hitzak bukaeran t kontsonantea badu, aditzoinak eutsi egiten dio t

**Oharra.**

**Aditz batzuek, tradizioz, t kontsonantea dute aditzoinean:**

| PARTIZIPIOA | ADITZOINA |
|---|---|
| ezagutu | ezagut (*ezagu / *ezagutu) |
| lotu | lot ( *lo / *lotu) |
| ohartu | ohart / ohartu (*ohar) |

| | | |
|---|---|---|
| bat | batu | batu gintezke<br>bat gintezke |
| oroit | oroitu | oroit |

# EHULKUren aholkua

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren estilo-gomendio:

Ahaleran, aginteran eta subjuntiboan aditzoina erabiltzea (1), eta, Hiztegi Batuak aukeran uzten duen kasuetan (aditz eratorrietan eta hiztegian jasotako salbuespenetan), partizipioaren forma bereko aditzoina (2)

(1)
azter dezagun
ikus dezakegu
ekar ezazu
etor daitezen
…

(2)
zehaztu ezazu
edertu dadin
beltztu daiteke
ohartu gaitezen
…

**Hiztegi Batua**

**urdindu**, urdin(du), urdintzen. *da/du* ad.

**Oharra:** zerrenda honek **arau** maila du